

KANALAK



Gure produktua gizartera zabaltzeko hainbat kanal ezberdin erabiltzea erabaki dugu, hauek dira aukeratu ditugun kanal nagusiak:

- Horretarako lehenik eta behin komunikazio-kanala definitu dugu, horretarako webgune online bat egingo dugu bertan gure produktua azalduz. Webgunean gure produktua nolakoa den azalduko da eta ze funtzio daukan. Webgune honen bidez bezeroek produktua ezagutu dezakete horrela gure produktua pixkanaka pixkanaka gizarlean zabaltzen joango da. Webgune honek beste ezaugarri bat izango du, bertan gure produktuaren eskaera egin dezake eta gero produktua etxera edo nahi duen lekura iritsiko zaio. Beste aukera bat enpresara bertara deituz izango da, bertan pertsona batekin hitz egiteko aukera izango da eta horrela produktuaren berri jakin.

 online



- Gure produktua etxeetara, ostaluetara edo dena delakora ailegatzeko erabiliko dugun banaketa kanala furgoneta bidez izanen da. Guk gure furgoneta izango dugu eta horrela etxeetara guk eramaten dugu gure produktua horrela guk bertan muntatu ahal izateko. Gure furgoneta renting-en hartuko dugu eta hilabetero 367€ ordainduko ditugu, horrela, ez dugu furgonetaren mantentze gasturik izanen alokatzeko enpresaren esku dagoelako.



- Salmenta kanalari dagokionez, gure produktua zuzenean bezeroari salduko diogu. Hau da, gure produktua soilik gure lokalean aurkituko dute bezeroek eta horretarako bertara joan beharko dira produktua erostera edo bestela beste aukera batzuk eskeintzen ditugu. Beste aukeren artean internet bidez izan daiteke.



Azkenik produktua bezero bati saldu eta gero inkesta txiki bat egitea erabaki dugu. Honekin gure produktua hobetzea eta bezeroak ea gustura dauden erositako produktuarekin jakitea da helburua. Bezeroek esango dizkiguten gauzeekin gaizki egin ditugun gauzak hobetzen saiatuko gara eta ongi egin ditugun gauzak berdin egiten jarraituko dugu, hau da bezeroen eskaeretara eta beharretara egokitzen saiatuko gara.